

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € · 2024ko maiatza
288 znb

22-31

Paulo
Iztuetari
elkarriketa

32-37

Bizirik
irauteko bidean

38-45

Eskolan lotura
afektiboak
eraikitzen

50-52

Proposamena:
Lotsatzeko
jarrerarik ez

54

Atzeko atletik

IDU: inklusiorako tresna



Aurkibidea

“

Gure burua babesteko zinezko lanabesik ez dugun bitartean, kultura nazionala higatzen ari zaigu, sedimentatzen, hutsaltzen, apurtzen eta galtzen. Kolonialismo kulturalak agintzen baitu gurean

Asisko Urmeneta

6 EDITORIALA
Guztiontzako eskola

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA
Bizipoza

12 GAI NAGUSIA
LHko jardunaldiak: IDU



22 ELKARRIZKETA
Paulo Iztueta



32 ESPERIENTZIA
Bizirik irauteko bidean

38 EKARPENA
Eskolan lotura
afektiboak eraikitzen




46 AHALDUNTZE ESKOLA
Subjektu politikoak eraikiz

50 PROPOSAMENA
Lotsatzeko jarrerarik ez



54 ATZEKO ATETIK
Beatriz Barriola Ayerdi





Berezitasunik ez duenak, altxa dezala eskua. Nor bere ezaugarriekin, batzuk besteak baino erronka konplexuagoekin, guztiok gara anitzak. Anitza da errelitatea eta oso anitzak dira gure ikasgelak. Anitza behar du izan, beraz, ikaskuntzaren diseinuak eta planifikazioak.

Guztiontzako eskola

Editoriala

Hernaniko Atsegindegi plaza mukuru bete zuen Bizipoza jaiak. Aniztasunaren erakusle. Aniztasuna bera zeinen anitza den erakutsi zuen jaiak, Bizipoza elkar-
tea osatzen duten elkarteak oso anitzak baitira. Izan haurra hil zaien familiak, gaixotasun arraroak dituztenak, harre-
rako umeen familiak, bihotzeko kardiopatiak dituzten umeen
sendiak, autismoa duten umeak... Bistakoak diren zailtasunak
dituzten pertsonetatik, ikusgarritasun handiagoa behar duten
baldintzak dituzten pertsonetara, Bizipozak gure errealitatearen
aniztasuna jasotzen du.

Eta ume horiek guztiak gure ikasgeletan daude. Euren motxi-
larekin baina baita euren irribarrearekin ere. Harago, bistakoak
diren erronkez gain, lehen begi kolpean ikusten ez diren konple-
xutasunak biltzen dira gelan: neurohezkuntzak erakutsi dugun
moduan, ikasle guztiek, garun diferenteak eta beraz, ikasteko
modu diferenteak dituzte; guztiok gara anitzak, desberdinak eta
bereziak. Oso anitzak dira gure ikasgelak, bai, eta neurrikoa al
da ikastetxeak eta irakasleok ematen dugun erantzuna?

IDU Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala eskolan dugun aniz-
tasunari erantzun benetan inklusiboa emateko tresna bat da.
Ondoren partxeak ezarri eta egokitzen egin beharrean,
ikaskuntzaren planifikazioa eta diseinua aurrean dugun errea-
litate anitzean pentsatuz prestatzeko jarraibideak eskaintzen
dizkigu. Egokitzen ordez, aldarmioak jartzea proposatzen
du IDUk, Coral Elizondo adituak Basteron eskaini zigun jardun-
aldian azaldu zuen moduan. "Oztopoak pertsonak dituela
pentsatzen, oztopoak testuinguruan daudela ikustera pasa-
tzen gara. Hasieratik gelan ditugun ikasle guztiengan pentsatuz
diseinatzen eta planifikatzen dugu gure eskola [IDUrekin]".
Praktikan diseinu unibertsalaren filosofia bera gauzatu zuen
Bizipoza jaiak Hernanin, antolakuntzan buru-belarri ibili den
Pausoka elkarteko ordezkariak, Amaia Irazustak laburbildu
zuen moduan: "Hau ez da guztientzako egokitutako festa bat,
hau hasieratik guztiontzako pentsaturiko festa bat da".

Guztiontzako pentsatu eta prestatu behar ditugu gure eskolak,
Elizondok dioen moduan, "ikasle guztientzako izan behar dugu
irakasle; guzti-guztientzako". Badugu filosofia eta baditugu
tresnak; ez dago aitzakiarik.



Mañolo Espellet

Estitxu Robles Arangiz kolegioko zuzendaria
eta *hik/hasitarra*

Eskola-maila apalduz doa

Nazioarteko Pisa programaren ebaluazioek bat egiten dute Iparraldeko ikastetxe ainitzetan entzun daitekeen mantra delakoarekin: "Ikasleen maila apalduz doa!".

Beraz lehenengo mailako eskola-maila askoz gorago izan behar zela pentsa dezakegu. Hala ere, Iparraldeko datu historikoen azterketak ez digu horrelakorik erakusten.

1960. hamarkada arte Frantziako estatuko lehenengo mailako eskolan *Certificat d'Etudes Primaires* (lehenengo mailako ikasketa agiria) deitutako diploma lortzeko helburuarekin aritzen ziren ikasle guziak. Gaur egun azterketa mitiko horren gogoratzerakoan nostalgiaz beteriko hasperenak oraindik ateratzen zaizkie batzuei: buruzko kalkuluaren nagusitasuna, Frantziako kolonialismoaren dirdira goreseteko katexima errepublikanoa eta, zeremoniaren bihotz sakratua, frantsesezko diktaketa!

Hala ere, errealitatea ez zen hain baikorra eta ikaslegoaren erdiak baizik ez zuen azterketa hori gainditzen:

- Heren batek (inguramen hiritar eta sozio-ekonomiko sendoenetarikoak) nahiko

errazki lortzen zuen eta horregatik kolegioan (bigarren mailako ikasketetan) segitzeko aukera eskainia zitzaion, berantago Batxilergoa lortu eta lanbide ospetsuenetan aritzeko asmoarekin.

- Beste ainitzei (usu laborari edo langile xumeen seme-alabei) eskola amaitzen zitzaion 13 edo 14 urteekin diplomarik gabe eta kalifikazio handirik eskatzen ez zuen lan bati lotzeko aterabidearekin.

Galdutako paradisu pedagogikorik ez da sekulan izan. Alta, hau da Frantziako gobernamenduak eta baita telebista emankizunetako eskuineko aditu orojakile batzuek ere kolegioetan eredutzat finkatu nahi dutena datorren sartzerako:

- "Oinarriak" sendotuko direlakoan Frantses eta Matematiketako ikasgaietan zailtasunen araberako multzoetan ikasleak banatzeko agindua lau urtez.

- Eskolako uniformeak jantzeko "esperimenduak".

- Frantziako errepublikaren baloreen interpretazio zorrotzaren eta transmisioaren zainketa.

Erreforma horren egiazko motibazioak gogetatuko dituzuelakoan, ongi izan.



Nora Salbotx Alegria

Amaiurko eskolan maistra eta *hik/hasitarra*

Koloretako lapitzez iraultza

Mario Lodi pedagogo italiar antifaxistak zioen adimenaren begiekin begiratzen dugunean hasten garela zinez konprenitzen mundua, kausa-efektuak ulertzen, gauzen arteko loturak egiten. Zioen ere karel gainetik bota beharko genukeela eskola zaharra, haur eta gazteen arazoei ez ikusiarena egin eta edukiak bere testuinguru historikoan kokatu gabe aritzen delako, hain zuzen ere. Gainera ekinez ikasten dela zioen; idazten idatziz ikasten dela, solasean solasten eta eskuekin gauzak eginez berdin. Hortaz ez zituen maite "haurra besaulkian jarrita uzten duten gailu horiek guztiak", bere garaian telebistak, eskolaratutako lehen ordenagailuak, VHS bideoak eta gisa horretakoak zirenak. Eta horrexegatik, alta, eskolan sormena aldarrikatzen zuen bizitza eta jendarte hau aldatu nahi dugunon nahitaezko eduki gisara. Langile klaseak, mundu hobe baten eraikuntzan ariko bazen, inork ez bezala behar zuelako eskola sortzaile bat, bere ustetan.

Akaso hortaz kultura sortzailatzat zeuzkan haurrak, bere ikasgelan ipuinak auzolanean idazten zituztenak. Akaso hortaz ere, bere koloretako lapitzak aurkitzen ez zituen haur baten arranguratik abiatu eta norat joanak

ote ziren galdera pausatzeko ausardia zuen Lodik. Eta, akaso hortaz, margo horiak animatuta, gainerako lapitzak ere estutxetik ihes egin eta mundua ezagutzera joanak zirela erantzuten zioten haurrek, batzuen eta berzteen ideiak josiz eta berreginez. Eta, gainera, munduan gauzak itsusi zeudela gehitzen zuten:

- Lapitzak joan dira etxe itsusiak koloreztatzera... eta karrika grisak... kolorerik gabeko autoak... lainoak eta euria... jende tristearen aurpegi tristeak... jantziak... den-dena.

- Hainbertze margotu dute kamustu direla, motz-motz gelditu...

- ...Eta hil egin dira.

- Bai, hala da, baina dena koloretsu eta berri bilakatu dute.

Koloretako lapitzen inguruko ideia xalo hauen gibelean bazen, eta balegoke gaur ere guk hala nahi izanez gero, haurrak hezteko modu bat, jendartearen kontraesanak agerian utzi eta injustiziak ezabatze gogo iraultzaile bat erakusten duena.

Eta margoa gorria balitz? Edota morea? Berdea balitz, orduan zer?

Eta margoa euskara balitz?

Hileko irudia

Bizipoztu dezagun mundua

Hau ez da guztientzako egokitutako festa bat, hau hasieratik guztiontzako pentsaturiko festa bat da”, zehaztu zuen Pausoka elkarte Amaia Irazustak Bizipoza jaiko ekitaldi nagusian, Hernanin, apirilaren 27an. Horra, ñabarduran dago Bizipozaren filosofia. Jai koloretsua, anitza egin zuten Hernanin, mundua den bezain koloretsua eta anitza, eta

munduak izan beharko lukeen bezain alaia eta inklusiboa. Oholtza eta mikrofonoa hartu zuten Pausoka, Bihotzez, Aspanif, Arnasa, Ilargi Bihotzez, Ndank Ndank, Hiru hamabi eta beste hainbat elkartetako umeek eta gurasoek. Eta ñabarduraz ñabardura, irriz irri, bizitzako lezio bana zabaldu zuten bozgorailuetatik. Urtean behin ez, eta egunerokoan beharko luketen erdigunea hartuz.





Gai nagusia

IDU: aniztasunari erantzuteko tresna

Neurozientzian oinarriturik, IDU Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren marko teoriko praktikoa azaldu zuen Coral Elizondo adituak **Hik Hasik** antolatutako Lehen Hezkuntzako jardunaldietan. Ikaskuntza egoera malguak prestatzen laguntzeko jarraibideak eskaintzen ditu IDUk, ikaskuntzaren diseinuan ikasle guztiak aintzat hartuz eta ikasle guztien arrakasta helburu izanik. David Castrillok Iruñeko Mendigoiti eskolan IDU nola darabilten azaldu zuen.



» Coral Elizondo, **Hik Hasiren** Lehen Hezkuntzako jardunaldietan, Andoaingo Bastero Kulturgunean.

Gaur egun kalean aurki ditzakegun oztopo fisikoak eta arkitektonikoak oso argi ikusten ditugu, eta eraikuntza berrienak oztopoak saihesteko moduan diseinatuak daude: maldak, igogailuak, eskailera mekanikoak... gure paisaiaren parte bihurtu dira. Gaur egun, espazio bat diseinatzeko denean, arkitektoak buruan izan behar du hasieratik “herriar guztientzako” diseinatu behar duela. 1970eko hamarkadan AEBetan arkitekturaren esparruan sortu zen *Diseinu Unibertsala* kontzeptua eta gaur egun mundu mailan arautua dagoen ikuspegia da. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak arkitektoari begirada —hau da, guztientzako diseinatzea— hezkuntzara ekarri zuen 80-90etan, eta orain, dekretuz, Hego Euskal Herrian txertatu beharreko begirada izango da hezkuntza planifikatzeko eta praktikara eramateko erreferen-

tzia marko moduan. IDU azaltzeko eta praktikarako jarraibideak ezagutarazteko, **Hik Hasik** IDUri buruzko jardunaldia egin zuen apirilaren 20an, Andoaingo Bastero Kulturgunean, IDUn aditua den Coral Elizondo hezitzailearekin eta IDU erdigunean duen Iruñeko Mendigoiti ikastetxeko David Castrillo irakaslearekin.

“Gelan ditugun ikasle guzti-guztientzako irakasle izan behar dugu irakasleok”, esan zuen Coral Elizondok, gaur egun geletan daukagun aniztasunari erreferentzia eginaz; “ez ikasle gehienentzat, ezta batezbesteko ikasleentzat ere; guzti-guztientzat izan behar dugu irakasle”. *Batezbesteko ikaslearen tiraniak* mintzatu zen, orientatzaile moduan egindako urtetako lana oinarri hartuta: “Erdigunean batezbesteko ikasleak jartzen ditugu, eta horrek ikasle asko bazterretan uzten ditu, iristen ez garen ikasle

asko. Eta, gainera, gu iristen ez garen ikasle horiei etiketak jartzen dizkiegu, pertsona etiketa bat baino askoz gehiago dela ahaztuta”. Ez daude bi ikasle berdin; aurpegiz eta itxuraz ezberdinak diren moduan, ikasteko eran ere ikasleen artean desberdintasun handiak daudela adierazi zuen Elizondok. Michael Miller neurozientzialariak egindako ikerketa izan zuen aipagai: “Ikerketan parte hartu zuten pertsona guztien garunak oso desberdinak zirela ikusi zuen, hau da, ez dagoela *normala* edo *araua* den garunik; oinarritzko egitura bertsua izanagatik, pertsona guztien garunak desberdinak direla ohartu zen, eta horrek azaltzen duela pertsona bakoitzak ikasteko modu desberdina izatea. Eskolak, beraz, garun normal bat dagoela pentsatu eta ikaskuntza horren arabera diseinatu eta planifikatu beharrean, hasieratik neuroaniztasuna dagoela hartu beharko luke kontuan. Aniztasuna da *araua*”.



Eskolak garun normal bat dagoela pentsatu eta ikaskuntza horren arabera diseinatu beharrean, hasieratik neuroaniztasuna hartu beharko luke kontuan

Coral Elizondo, IDUn aditua

Ikuspegi horrek begirada aldaketa bat ekarri zuen hezkuntzara: batezbesteko ikaslea erdigunean jarri ordez, ikasle guztiak euren gaitasunekin, konpetentziekin eta ezaugarriekin hartzen dituzte IDUk. “Dibertsitatearen eredutik inklusioaren eredura pasatzen gara, eta oztopoak pertsonak dituela pentsatzetik, oztopoak testuinguruan daudela ikustera pasatzen gara. Hasieratik gelan ditugun ikasle guztiengan pentsatuz diseinatzeko eta planifikatzeko dugu gure eskola, hala irakurle onarengan nola dislexia daukan ikaslearengan pentsatuz, esate baterako. Ikasle guztiei aukerak ematea eskatzen dugu IDUk; ulertzeko, adierazteko, irudikatze edota ekiteko aukerak ugaritzea. Paradigma aldaketa bat proposatzen du IDUk: ikasteko oztopoak minimizatuz, ikaste-

ko aukerak maximizatzea da IDUren proposamena”. Era berean, IDUri esker, desgaitasunak dituzten ikasleen eta desgaitasunik ez daukaten ikasleen arteko dikotomia hausten da, alternatiba ugari eskaintzen direnean, ikasle guztiek jasotzen baitituzte horren onurak. Esate baterako, testu bat idatziz soilik eskaini ordez, edukia entzuteko aukera ematen zaizkionean, ikusmen arazoak dituen ikasle batek hala behar duelako, adibidez, edukia hobeki bereganatuko du artean irakurtzeko zailtasunak dituen ikasleak ere, jardueraren helburua edukiaren jakintza barneratzea den kasu batean.

Neurozientzia IDUren oinarrian

IDUren oinarrian neurozientzia dago. Izan ere, garunek ikasketa prozesuetan nola funtzionatzeko duten azaldu dute neurozientziako ikerketek, eta horiek asko lagundu dute garunen egiturak eta funtzionamenduak

ulertzen. Ikaskuntza prozesuetan bereziki hiru sare neuronalek garrantzia handia dutela erakutsi du neurozientziak: sare afektiboak, antzemateko sareak eta sare estrategikoak. Eta sare neuronal horiek eragiten dute *zer*, *zergatik* eta *nola* ikasten duen ikasle batek, hau da, sare neuronal bakoitzak zeregin espezifikoak dauka ikasketa prozesuan. “Sare afektiboan, antzemateko sarean eta sare estrategikoan dituzten desberdintasunengatik, ikasleen ikasteko moduak desberdinak dira. Ikaskuntza arrakastatsua izan dadin, ikasle guztien sare neuronalak aktibatu behar dira, bakoitzaren gaitasunen eta beharren arabera, ikaskuntza proposamen bakoitzean”.



» Lehen Hezkuntzako jardunaldian parte hartu zuten hizlariak eta irakasleak.

Sare afektiboa: zereginei zentzu emozionala ematen dien sarea da, motibazioarekin zerikusia du eta beraz, sare hori kontuan izanik ikaskuntzan inplikatzeko, motibatze eta ikaskuntzarekin konpromisoa hartzeko modu ugari eskaini behar zaizkie ikasleei.

Antzemateko sarea: informazioa antzematen eta esanahiak ulertzen espezializatutako sarea da. Elizondoren arabera, arlo curricullarrarekin lotura handiena duen sarea da, eta “informazioa irudikatze modu ugari eskaintzea eskatzen du, ikasleak informazioa ulertu dezan, irisgarria egin behar zaio, oztoporik izan ez dezan”.

Sare estrategikoa: jarduera motriz eta mentalen planifikazioan, gauzatzean eta prozesuen monotorizazio-lanetan espezializatua dagoen sarea da. Ekintzarako eta adierazpenerako modu ugariak eskaini behar dira sare hori aktibatze.

Hiru printzipio, bederatzi pauta eta 32 egiaztapen puntu

Sare neuronal horiek aktibatze, beraz, irudikatze modu ugari, askotariko ekintzak eta adierazpen modu ugari eskaini behar zaizkie ikasleei, bakoitzak bere modura funtzionatzen baitu. Adibide sinple batean: neurozientziak erakutsi du pertsona batzuek informazioa hobeto prozesatzen dutela bide auditibotik jasotzen dutenean, eta beste batzuek, aldiz, ikusizko bideetatik jasotzen dutenean. Oinarrizko diferentzia horretatik konplexuagoetarako, euskarri ugari eskaini behar ditu ikasle guztientzako iritsi nahi duen irakasleak. Horregatik, testuliburuaren arriskua aipatu zuen adituak: “Izan ere, euren gaitasunengatik eta ezaugarriengatik testu idatziekin ongi konpontzen ez diren ikasle kasuak, oztopoak izango dituzte jakintza eraikitze eta berengantzatzeko”.

Hiru sare neuronalen arabera hiru printzipio-tan oinarritzen da IDUren eskema: ikaskuntzan inplikatzeko modu ugari eskaini; informazioa irudikatze modu ugari eskaini eta ekintzarako eta adierazpenerako modu ugari eskaini. Eta hiru printzipioek beste hiruna pauta edo estrategia multzo zehazten dituzte (bederatzi beraz) eta bederatzi pautek jarraibide praktikoak eskaintzen dituzte, orotara 32 jarraibide edo egiaztapen puntu praktiko, irakaslearen curriculumak ikasle guztientzako eskuragarria dela ziurtatzen laguntzen diotenak eta oztopoak deusezten ari dela ziurtatzen diotenak. “Zergatik ikasi? zer ikasi? eta nola ikasi? galderei erantzuteko marko teorikoa ez ezik, ekintza konkretoak eskaintzen ditu IDUK”. Jennifer Levine IDUren teorizatzaileetako baten hitzak ekarri zituen puntu horretan, IDUren definizioan sakontzeko: “IDU hezkuntza marko bat da, metodoetan, materialetan eta ingurune

IDU: oinarrizko 3 kontzeptu

IDUren marko kontzeptuala ulertzeko, hiru kontzeptu argitu behar dira, Elizondoren arabera:

Oztopoak diseinuan daude, ez pertsonengan. Ikaskuntzako testuinguruetan dauden oztopoak (fisikoak, sentzorialak, afektiboak edo kognitiboak) identifikatzen, aurreikusten eta minimizatzen direnean deuseztu daitezke. “Hezkuntza erakunde baten alderdi guztietan aurkitu ditzakegu oztopoak: hezkuntza politikan, eskolako kulturean, hezitzailearen praktikan... Oztopo guztiak deuseztu ditugunean hasiko gara ikasle guztien sarbidea, partaidetza eta ikaskuntza bermatzen”.

Aniztasuna da araua: “Batezbesteko ikaslea erdigunean izatetik ikasle guztien aniztasuna kontuan hartze- ra igaro behar gara, gure ikasleek ikasteko modu anitzak dituztela kontuan izan behar dugu irakaskuntza planifikatzen dugunean”.

Ikaskuntza aditua da helburua: “Jarraibideak metakognizioa lortzeko diseinatuak daude, jakintza berreratzea lortzeko”.

Ikaskuntzan inplikatzeko modu ugari eskaini



Sare afektiboak,
ZERGATIK IKASI

» Interesa erakartzeko aukerak eskaini

- Aukera indibidualak eta autonomia optimizatu
- Garrantzia, balioa eta benetakotasuna optimizatu
- Mehatxuak eta arreta-galtzeak gutxiagotu

» Esfortzuari eta iraunkortasunari eusteko aukerak eskaini

- Helburuen garrantzia nabarmendu
- Eskakizunak eta baliabideak aldatu erronkak optimizatzeko
- Kolaborazioa eta komunikazioa sustatu
- Maisutzara bideraturiko feed-backa elikatu

» Autoerregulatzeko aukerak eskaini

- Motibazioa optimizatzen duten espektatibak eta sinismenak sustatu
- Erronkei aurre egiteko gaitasunak eta estrategiak erraztu
- Autoebaluazioa eta hausnarketa garatu

Informazioa irudikatzeko modu ugari eskaini



Antzemateko sarea,
ZER IKASI

» Hautemateko aukerak eskaini

- Informazioaren irudikatzeko pertsonalizatzeko aukerak eskaini
- Informazio entzunari alternatibak eskaini
- Informazio bisualari aukerak eskaini

» Hizkuntzarako eta adierazpen eta sinboloetarako aukerak eskaini

- Hiztegia eta sinboloak argitu
- Sintaxia eta egitura argitu
- Testuen, idazkera matematikoaren eta sinboloen deskodetzea erraztu
- Hizkuntza ezberdinen arteko ulermena sustatu
- Bitarteko ugarien bidez ilustratu

» Ulermenerako aukerak eskaini

- Aldez aurreko jakintzakaktibatu edo eskaini
- Patroiak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta horien arteko erlazioak nabarmendu
- Informazioaren prozesaketa, bistaratzea eta manipulazioa gidatu
- Informazioaren transferentzia eta orokortzea maximizatu

Ekintzarako eta adierazpenerako modu ugari eskaini



Sare estrategikoak,
NOLA IKASI

» Ekintza fisikorako aukerak eskaini

- Erantzuteko, nabigatzeko eta elkarrekintzarako metodoak aldatu
- Baliabideetarako eta laguntza teknologietarako sarbidea optimizatu

» Adierazpenerako eta komunikaziorako aukerak eskaini

- Komunikaziorako bitarteko ugari erabili
- Eraikuntzarako eta konposiziorako tresna ugari erabili
- Jardueretarako eta praktikarako laguntza mailakatuarekin jariora garatu

» Funtzio exekutiborako aukerak eskaini

- Helburu egokiak ezartzen lagundu
- Estrategien planifikazioa eta garapena lagundu
- Informazioaren eta baliabideen kudeaketa erraztu
- Aurrerapena monitorizatzeko gaitasuna hobetu

malguetan oinarritzen dena, oztopoak minimizatzen dituen eta guztion aniztasuna kontuan duena ikasle adituak garatzeko”.

Aldamioak versus egokitzapenak

“IDUren helburua ikasle adituak erdiestea da. Horretarako, ikasle guztiekiko espektatiba altuak izan behar ditugu, guzti-guztiekiko. Irakasle batek ikasle batekiko espektatiba baxuak edukitzea oztopo bat da ikasleak bere ikaskuntza prozesuan aurrera egin dezan”. Egokitzapen curriculumak egin beharrean, IDUk aldamioak edo behar diren laguntzak eskaintzea proposatzen du: “Ikasle bakoitzari ahal duena edo maila bat gorago eskatu behar zaio, baina bere onena eman dezan behar duen laguntza eman behar dio hezitzaileak”. Aldamio horiek praktikoak dira, eta, bereziki, alor digitalak estrategia ugari eskaintzen dizkie ikasleei. “Antzemateko sareari loturik, informazioa irudikatzeko modu ugari eskaini behar ditut esaten dit IDUk. Beraz, testu idatziaren alternatibak eskaini behar ditut, entzumenezkoak edo irudiak, informazioa aberasteko QR kodeak, irakurketa errazeko estrategiak... Testua bera ere, ahalik eta irisgarrien egin behar dut, letra tipoa zainduz (kursiba gabe, *arial* edo *verdana* tipoetan, eta 12ko tamainan) eta testuak interpretatzeko ere behar diren aldamioak eskainiko ditut jardura bakoitzean, testuak interpretatzen laguntzen duten grafikoak, mapa mentalak, *visual thinking*-eko estrategiak... Edo testutik harago,

SARBIDEA

ERAIKUNTZA

BARNERATZEA

JOMUGA

IKASTUN ADITUAK

Seguruak eta motibatuak

Zorrotzak eta jakitunak

Estrategikoak eta helburura bideratuak

Neurozientziaz eta IDUz esanak

» **Batezbesteko pertsonen gainean eraikitako diseinuak porrotera kondenatuak daude. Beharrezkoa da ingurunearen diseinua aldatzea: inguruneak egokitu behar dira pertsonetara eta ez pertsonak batezbesteko ingurunera**". (Gilbert S. Daniels 1952, *The average man?*)

» **Ez dago ganbara batean garun perfektuki normalik gordeta, eta ezin dira, beraz, beste garunak garun perfektuki normal horrekin konparatu. Garun normalik ez dagoela onartu behar dugu, lore normalik, talde kultural edo arraza talde normalik ez dagoen moduan**". (Armstrong 2012, *The Power of Neurodiversity*)

manipulazioa ahalbidetzen duten materialak eskainiko ditut. Eta horrela, pautu guztiak izan behar ditut kontuan, ondoren egokitzapenik egin beharrik ez izateko".

IDUren aurretik, hala hezkuntzan nola arkitekturan, behin *batezbesteko pertsonentzat* diseinatu ondoren, *a posteriori* egokitzapenak egiten ziren bestelako beharrak zituzten ikasleentzako —eta egiten dira oraindik ere—. Egokitzapen horiek ikasleentzat egokiak eta erakargarriak ez izateaz gain —"ikasleei beste ikaskideek egiten dituzten ekintzak proposatu

beharrean, berezi batzuk eskaintzeak bazterketa eta desmotibazioa eragin dezakete"—, irakasleentzat ahalegin eta denbora xahutzea dakar, "behin planifikazioa diseinaturik dagoenean, pertsona bakoitzarentzat egokitzapenak egiteak lan handia baitakar". Proposamenak dibertsifikatuak eta mailakatuak izatea gomendatzen du adituak, metodologia aktiboak lehenesten ditu, parte hartzaileak eta sozialak, irakasleen hitzaldi magistralen eta ikasleen parte hartze gutxiko metodo tradizionalen aldean; "proiektuetan oinarrituko ikaskuntza, esate baterako, lagungarriagoa da IDUren ikuspegitik eta inklusioaren ikuspegitik".

IDUk marko teoriko eta jarraibide praktikoak uztartzen dituen begirada eskaintzen du, baina Elizondo jabetzen da lehen hartu-emanen abstraktua eta konplexua dirudiela. "Liseriketa behar duen markoa da, baina guztiok ari zarete IDU egiten, horren jakitun ez izan arren", esan zien jardunaldian batu ziren hezitzaileei. IDUrekin hasteko, irisgarritasuna zaintzea eta gertukotik hastea gomendatu zien irakasleei: "Ikasleekin egin behar dugun guztia aurrez azaldu behar diegu beti, zer, nola eta zertarako egingo dugun. Bidean baliabide ugari eskaini, eta, era berean, metakognizioa sustatu behar dugu: zer ikasi duzu gaur? Ikasitakotik zerekin gelditzen zara?".

Iruñeko Mendigoiti ikastetxea IDUren eredu da. Eskolak inklusioa du oinarri eta berau gauzatzeko IDU baliatzen du, nola planifikazioan hala praktikan. Iritzien gainetik, ebidentzia zientifikoek eta neurohezkuntzak ikertuak dituzten ekarpenak hartzen dituzte oinarri, eta horregatik baliatzen dute IDU. Castrillok honela laburbildu zuen IDU: "Modu ugari, modu ugari, modu ugari eskaini ikasleei aldi berean". Gelan proposamen dibertsifikatuak eta mailakatuak eskaintzen dituzte, horietako batzuk derrigorrezkoak dira, ikasleek beste batzuk aukeran dituzte eta beste batzuk borondatezkoak dira. "Eta funtzionatzen du".

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

udako topaketak 2024

Uztailak 2,
3 eta 4ean
Donostian

22 ikastaro anitz
eta berritzaile uda
giroan jakin-mina
zorrozteko.



www.hikhasi.eus/formazioa

Izen-ematea zabalik





Paulo Iztueta

EHU-KO IRAKASLE OHIA

“Euskal sentimendua apala da gaurko eskoletan

Gertuko historia zatitxo batekin hizketan aritzearen parekoa da Paulo Iztuetarekin (Berastegi, 1941) hitz egitea. Apaiz izandakoa, erbestea ezagutu du eta euskal pentsamendua eta euskara bultzatzeko lan handia egin du. *Arnas* eta *Zabal* aldizkarien zein *Elkar* eta *Utriusque Vasconiae* argitaletxearen sortzaile izan zen, besteak beste, eta baita UZEIko Soziologia Sailaren zuzendari eta Filosofia eta EHuko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea ere. Euskal hezkuntzaren egoeraz mintzatu da Iztueta.



Has gaitezen gaurkotasuna duen gai batekin: zer iritzi duzu Euskal Autonomia Erki-degoan onartu berri den Hezkuntza Legeari buruz?

Ezkorra naiz. Hezkuntzak bere arazo espezifikoak ditu, bereziki estaturik ez duen herri batean, eta hezkuntzari buruzko proiektu oso bat baldintzatuta geratu da. Ez naiz batere gustura geratu Eusko Jaurlaritzak hartu duen jarrerarekin. Presio handiak daude hor tartean, sekulako iluntasuna dago, bertako hezkuntzaren egiazko arazoen aurrean irizpide politikoak nagusitu dira eta ez da ezer aurreratu. Lehengoari jarraipena eman zaiola iruditzen zait eta euskal hezkuntzak dauzkan egiazko arazoen aurrean aurrerapausoak eman ordez, atzerapauso eman ote den zalantza dut. Egungo egoera aztertu behar da, hizkuntza ereduak aztertu behar dira eta emaitza soziologikoak jaso behar dira. Bide hori ezarritako helburuetara iristeko benetan kamuts geratu dela eta egindako bideak aldarrikatzen diren helburuetara iristeko muga absolutuak dituela ikusten duzunean, hortik jarraitzea iruzur egitea da; herri proiektu bati iruzur egitea.

DBH amaitzean euskaraz B2 maila lortzeko helburuak definitu dira legean, eta hori lortzeko bidean ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektua garatzea proposatu da. Zer iritzi duzu?

Horrek ez du ez hankarik, ez bururik. Ezin dugu hipokrisiaz jokatu. D ereduak eman behar-koa eman du. Lanbide Heziketari begiratu besterik ez dago: %18 inguruk egiten ditu ikaske-

tak euskaraz. Eta mundu hori ere gurea da, ezinbestekoa da eta landu egin behar da. Egungo ereduak unibertsitate ikasketak euskaraz, bokazioz, egin nahi izan dituenari bide eman dio, ozta-ozta. Baina dugun unibertsitate, funtsean, linguistikoki erdalduna da eta politikoki, espainiarra. Irakasleen gehien-goia Madrilera begira dago euren karrera profesionalean aurrera egiteko. Dena politizatua dago eta ez dugu euskal unibertsitate euskaldunik. Eliteen arazoa da: inteligentzia Espainiko estatuaren arabera eta hari begira ekoizten bada, ea nora goazen.

Ekoizpenak euskalduna izan behar du, bestela ez delako euskal pentsamendurik sortzen. Eta intelektualik gabe, ezin dugu inora joan. Geure unibertsitatea izateko saiakerak egin diren arren, inteligentzia guztia atzeriratu dago. Eta horri buelta emateko zailtasun handiak ditugu. Hala ere, buelta emateko garaiz gabiltzala uste dut. Sinetsiko bagenu, herri gisa benetako apustua egingo bagenu eta denok bat egingo bagenu, behar den moduko inbertsio ekonomikoa egingo balitz eta bitartekoak jarriko balira, gauzak aldatu egin beharko lirateke. Euskal politikariek, ordea, euskararen arazoa ahaztu egin dute. Feminismoa edota ekologia bezalako gai generikoak lehen lerroan jarri dira, baina euskara ez dago erdigunean. PNVk eta PSEk langa jarri dute eta esan dute hortik ez direla pasako, eta kontuan hartu behar dugu, gaur egun, lehen baino testuinguru soziologiko larriagoa dugula.

Eta beste arazo bat ere aztertu nahiko nuke: hizkuntz eskubideak eskubide pertsonalak baldin badira, non daude eskubide kolektiboak? Zeren hemen inork ez du euskaraz egiteko obligaziorik eta Nafarroako zonifikazioa hor dugu. Non gelditzen dira lurralde eskubideak?

Elebitasunerako bidea oztopatzen dute-



Begiak ireki behar ditugu eta historia ulertu behar dugu: hemen asimilazio prozesu bat egon da, eta, horren ondorioz, ezin dugu guk nahi dugun mundua eraiki

nak erdaldun elebakarrak direla aipatu izan duzu. Eta baita elebitasunak ez duela euskalduntzen ere...

Elebitasunak herritarren erdia euskalduntzea dakar, kasurik onenean. Eta hizkuntzarentzat ondorioak larriak dira. Euskaraz ez dakien elite baten eskuetan gaude eta gaztelaniak eta frantsesak lurrari atxikitako hizkuntza jan dute. Euskara lurrari lotua baita. Begiak ireki behar ditugu eta historia ulertu behar dugu: hemen asimilazio prozesu bat egon da, eta, horren ondorioz, ezin dugu guk nahi dugun mundua eraiki.

Baina egoera larria izanik ere, aurrera egin liteke euskarazko hezkuntza sistema nazionalen sinesten baldin badugu. Inbertsio ekonomiko handia egin beharko litzateke, herri baten oinarria hezkuntza delako, eta immigranteen seme-alabak hartu, eskolatu eta euskaldundu beharko lirateke. Posible baita egiazko bitartekoak jarritz gero. Hori da bidea.

Euskara bermatu ezean, eleaniztasunari ez diozu ibilbiderik ikusten...

Eleaniztasunari buruzko planteamendu erratua da nagusi. Eleaniztasunak ez du planteamendu bera estatu batean edo menderatutako herri batean. Ez du esanahi bera, ezta eduki bera ere. Estatu batean, hizkuntza nazionala, ofiziala eta derrigorrezkoa, estatuak bere konstituzioan aldarrikatzen duena da. Estatu horiek plurinazionalak direnean, ordea, bertako beste hizkuntza batzuk daude, horiek ez dira derrigorrezkoak



Ezin dugu
inklusibitateaz,
alteritateaz eta
eleaniztasunaz hitz
egin geurea alboratuta

eta azken erantzulea norbanakoa da. Nahi badut hizkuntza horietan egingo dut eta ez badut nahi, ez. Kontzeptuen arteko kontraesan maltzurra dago: eleanitzak direnak osatuago daudela pentsatzen dugu, baina elebakarrak estatuko hizkuntza dutenak dira. Espainian herritar gehienak elebakarrak dira. Estatuak immigranteen hizkuntzak jasotzen dituzte eta eleanitzak direla diote, baina ez da hala.

Beraz, eleaniztasuna bertako hizkuntzaren kaltetan etorri liteke euskara bezalako hizkuntza gutxituen kasuan?

Bai. Hori esan nahi dut. Baina hori ezin da esan alderantzizkoa esan gabe. Gutxiengo batek hizkuntza bat baino gehiago dakizki eta hori aberasgarria da. Gehiengo, ordea, hizkuntza bakarrarekin bizi da. Guri obligazioz eskatzen zaigu gaztelaniaz edo frantsez jakitea, baina benetako elebidunak eta eleanitzak euskaldunok, hizkuntza gutxituetako hitzunok gara. Hori azpimarratu nahiko nuke.

Estatu propiorik eduki ezean, hortaz, aurrera egiteko aukera gutxi dugu. Espainiako eta Frantziako legeak gaititu behar al dira hezkuntzan benetako aldaketak egiteko?

Nazio-estatuak existitzen ez ziren nazioen gainean sortu ziren XVIII-XIX. mendeetan eta, poliki-poliki, herri hizkuntzak asimilatu zituzten. Estatu bakoitzak bere hizkuntza nazionala sortu zuen eta orain eman buelta horri! Baina egin dezakegu. Hizkuntza salbatu behar dugu, defizit esentziala baitugu horretan.

Immigrazioaren fenomeno ere hor dugu. Kanpotik datozenen gehiengoak Espainiara edota Frantziara etorri direla uste du, ez Euskal Herrira.

Gure artean gero eta kanpotar gehiago ditugu, horietako asko Hego Amerikakoak,

eta, beraz, gaztelaniaz aritzen direnak. Baina, nola euskalduntzen dira horiek denak? Zer baliabide daude hezkuntza elebiduna, integrala eta ona lortzeko? Nola sostengatzen da masa hori guztia botere politikorik ez duen herri batean? Zeren ez dugu botere politikorik. Autonomia bada zerbait, baina ez da aski! Boterea behar duzu horretarako eta, hemen, hizkuntza bakarrak eta legezkoak, gaztelania eta frantsesa dira. Arazo handia dugu horrekin.

Immigranteak jasotzean, beraz, bigarren mailan gelditzen da gure herri izaera? Estaturik, egitura politiko propiorik gabe, nola landu eta kudea daiteke hori guztia?

Ezin da estatu batean bezala landu; immigrazioak berezitasun hori du hemen. Ezin dugu inklusibitateaz, alteritateaz eta eleaniztasunaz hitz egin geurea alboratuta. Bertatik eta bertako arazoetatik abiatu behar dugu. Espainian edota Frantzian daudela uste dute eta bizitzeko ez dute euskararen beharrik. Horren aurrean geuk herri gisa geure bihotza dugula aldarrikatu behar dugu, gure azturak ditugula. Ni beste herri batera joaten banaiz, bertakoa egin beharko dut, baina ez dute horrela ikusten. Korapilo handiak daude.

Modernitatea kanpokoarekin eta erdararekin lotzen dugu maiz eta geurea aldarrikatzeko konplexua ere badugu.

Bai, bestela ez dago egoera azaltzerik. Euskal Herriak euskal unibertsitaterik izan ez duenez, eta pentsamendua unibertsitateetan sortu izan denez, hizkuntza aldetik etorri zaigun herentzia kamutsa izan da eta euskal inteligentzia espainiarra eta frantziarra izan da. Pentsamendua gidatzen du hezkuntzak eta, orain, horri buelta ematea sekulako lana da. Ez dugu euskalduna den eta euskalduntasunean oinarritua den hezkuntza sistema propiorik, eta zailagoa dugu pentsamendu propioa lortzea. Eta hori gabe, itsumustuan



eta noraezenez ibiliko gara.

Eskolan ere apenas hitz egiten da nazio arazoari buruz...

Zergatik ez da hitz egiten? Nik uste dut hitz egin beharko litzatekeela. Hizkuntza bat ikasteko historiak ere jantzi bat ematen dizu. Gaurko eskoletan euskal sentimendua apala da eta hainbat lekutan ez dago nazio ikuspegirik.

Euskal curriculumaz hitz egin dezagun. Zer izan beharko luke oinarrian euskal curriculumak? Nola ikusten duzu egungo egoera? Horren aldeko indar nahikorik ba al da? Ez ote dago eztabaidaren erdigunetik kanpo?

Nire ustez, euskal curriculuma oraindik ere ez da behar den modukoa. Euskal curriculumaren eraikuntza izeneko liburuan modu sistematiko batean planteatu nuen euskal pentsamendua sortu beharra dagoela eta hori lortzeko apunte etnografikoak, soziologikoak, ekonomikoak, politikoak... egin behar direla.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartek euskal curriculuma lantzeko planteamendua egiten du. Ikastolak dira euskalduntzen dutenak eta euskal lurralde osoan dituzte euren plataformak. Gaur egungo eskola publikoak ez du halako ezer lortzen eta ni hezkuntza publikoaren aldekoa naizen arren, egiazko bidea ikastolek egiten dutena dela ikusten dut. Erreferentzia historikoak baititugu: ikastolek, printzipioetan eta helburuetan euskal curriculum baten oinarriak dituzte. Daukaguna ez dezagun ahantz.

Guk euskal curriculum a egin behar dugu, ez espainiarra edota frantziarra. Curriculum garrantzitsua da eskola batean zer eta zergatik erakusten den ezartzen duelako, bati edo besteari zer garrantzia ematen zaion finkatzen duelako eta dena diferentea da gurea

bezalako herri menderatu batean. Estatuak, berez, curriculumaren erdia zehazten du, baina autonomien esku gelditzen den beste erdia, ez da betetzen.

Euskal curriculum behetik gora erakitzeke aukerarik izango al litzateke? Bakoitzak bere txikitik, ikastetxeetan, aukera du hainbat gauza lantzeko, baina beti egiten duzu topo mugaren batekin, ezta?

Bai. Gutxienez nolabaiteko pentsamendu libre bat, orekatu bat, gogoetatua... beharko litzateke dagoena hobetzeko, sostengatzeko, pentsamendua elikatzeke... Marko bat jarri beharko litzaioke.

Eta nola landu liteke eskolan pentsamendu propio hori?

Esaten dudana abstraktua dela esan izan didate. Hori dela eta, erretiroa hartu nuen curriculum propioa egiteko bidea bilatu nuen. Unibertsala den horretara joateko gure *locus* partikularretik abiatzea pentsatu nuen: prozesua behetik gora egitea, alegia. Lana egiteko ongi ezagutzen nuen testuinguru batetik abiatzea erabaki nuen eta Berastegi aukeratu nuen, nire herria delako. Hiru urte inguru pasa nituen lanean eta Berastegiko curriculum osatu nuen. Herriaren jatorriari erreparatu nion lehenik; herriaren konfigurazioa, nola eta zergatik sortu zen... Eta behin edukia zehaztuta, herria marraztu nuen, nolabait. Bigarrenik, herrian izan diren gatazkak azaldu nituen: klaseen arteko eta jauntxoaren arteko borrorak, kankak, gazteluak... Eta hurrengo galdera hau izan zen: eta orain ikusten dugun herria noizkoa da? Ebo-luzio baten ondorio izan al da? Bai, zalan-tzarik gabe. Eboluzioa azaldu behar da eta azterketa zehatza egin nuen: nik gaztetan herria nola ezagutu nuen, garai hartan denak baserritarrak ginela azaldu nuen eta herria jada ez dela lehengoa. Orain beste leku bat da. Material horrekin, Berastegirekin egin



Ez dugu euskalduna den eta euskalduntasunean oinarritua den hezkuntza sistema propiorik, eta zailagoa dugu pentsamendu propioa lortzea



nuen moduan, edozein herri azaldu liteke. Era berean, elementu guztiak dinamikoak izatea oso garrantzitsua da: kalean ibiltzea, filmazioak erakustea, herriko hainbat txoko ezagutzeko bisitak antolatzea... Ilusioa sortu behar du. Nik, lan horrekin eredua jarri dut, eta egingarria dela erakutsi dut.

Pentsamendu propioa lortzeko bide horretan, beraz, historiari erreparatzea beharrezkoa da.

Ezinbestekoa da. Bakoitzak beretik egiten du, baina, azken batean, dena euskal curriculumaren markoan sartzen da.

Egoera zaila ikusten duzu, baina bitartekoak jarritz gero, aurrera egin dezakegula diozu. Testuinguru honetan, non ikusten duzu euskal hezkuntza sistema nazionala?

Oraingoz, urruti xamar. Gainditu beharreko erronkak daude eta horrek zerikusi zuzena du politikarekin. Gauza batzuk egingarriak dira, edo izan daitezke eta, beste batzuk, beharbada ez, baina proiektzioan aurreikusi beharrekoak dira guztiak. Eta hainbat ideia mahaigaineratu behar dira: lehendabizi, sistema honekin aurrera baino gehiago, atzera egiten dela. Bigarren, planteamendu nazional baten barruan, asimilazioaren arazoa bizi duen mendeko herri bat hortik ateratzeko bideak zein izan litezkeen zehaztu behar da. Bide horiek errealak izan behar dute eta errealak izateko, herriaren beharrak zein diren zehaztu behar da eta, kontuan hartu behar da, horien artean hezkuntza sistema nagusia dela. Ondoren, denak sistema horren barruan sartu behar dira, inbertsioa egin behar da eta bestelako antolaketa egin behar da. Jarrera positiboa behar dugu, bestela honek ez baitu irtenbiderik. Gauza egingarriak planteatu behar dira, borondatea egonez gero egin litezkeenak. Guztiaren atzean interesak daude, ordea, eta hori arazo handia da.



Guk euskal curriculumuma egin behar dugu, ez espainiarra edota frantziarra



Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Oroitzapen ona dut, orokorrean. Eskolara lehen aldiz 6 urterekin joan nintzen. Egutero joaten nintzen eskolara eta handik bueltan, anaiari ardiak biltzen laguntzen nion. Irakaslea ez, baina beste guztiak euskaldunak ginen eta zaharragoek laguntzen ziguten gaztelaniaz emandako azalpen haiek ulertzen.

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

Ez dut oroitzapen txarrik. Gustura nago izan dudana eboluzioarekin. Historiaren ume bat naizela uste dut. Gu baserritarak izan gara, pentsamendu hori ekarri dugu eta ondoren jantzen joan gara.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Asko da egin dena. Ikastolek ekarpen handia egin dute. Alderdi humanoari eskolan zer-nolako lekua ematen diogun begiratu behar dugu. Gizatasuna eta umiltasuna behar ditugu. Erronka handia dago hor. Eskolari mundu teknologiko baten interesen alde jotzea eskatzen baldin bazaio, nik nahiago dut mendian bake-bakean bizi.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Zintzotasuna, zuzentasuna eta egia. Guztiaren gainetik. Eta karitatea, baina zentzu positiboan, ez karitate faltsua.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

Autoreen artean, Pierre Bourdieu nabarmenduko nuke.

Esperientzia

Bizirik irauteko bidean

Ziklo bereko ikasleak elkartuta, irakaskidetzaren bidea hartu dute Zangozako ikastolan. Edozein aldaketa prozesutan erronkak eta zailtasunak izaten diren arren, pausoa ematea errazagoa izan da, ikastola txikia denez eta klaustro egonkorra dutenez; irakaskidetzak bizirik irauteko aukera berria zabaldu die gainera.



» Zangozako ikastolako ikasleak bertako baratzean.

Irakaskidetzaren aldeko hautua egin dute Zangozako ikastolan. 2021-2022 ikasurte amaieran, egokitu beharra zutela ikusi zuten, begi bistan zituzten aldaketa guztiei aurre egiteko. Zuzendaritza aldatu zuten; LOMLOE legea zetorren, eta ikusi zuten pandemia garaian ezarri ziren eta ikastolarekin bat ez zetozen hainbat arau apurtu beharra zutela. Ikastolaren berezko ibilbidea berreskuratze gogo zuten, eta horri guztiari, gainera, arazo demografikoa gehitu behar zitzaion. Testuinguru horretan, irakaskidetzaren bidea hartzea erabaki zuten.

Zangozako ikastolako zuzendari pedagogiko eta irakasle Nagore Oriak azaldu digu hau-

tuaren zergatia: "Inguru honetan, oso jaiotza tasa baxua dugu, eta despopulazioa mahai gainean daukagu etengabe. Ikasgela txikiak ditugu, eta, etorkizunera begira, txikiagoak izan daitezke. Gainera, Haur Hezkuntzako itun bat galdu genuen une hartan; horren ondorioz, hiru irakasle izatetik bi izatera pasatu ginen. Horrek guztiak ikastolan aldaketak egitea eta egoera berrira egokitzea eskatu zuen". Eta, testuinguru horretan, irakaskidetzaren aldeko apustua egin zuten: "Ideia azaldu genion guraso batzordeari; haren babesa jaso genuen, eta, ondoren, inplikaturako familiekin bildu ginen, gure asmoaren berri emateko".

Irakaskidetzaren aldeko hautua bizirik iraute



Prestakuntzak bultzada handia eman digu. Klaustro osoak jaso du, eta ikusi dugu askotariko esperientziak daudela eta aurrera egitea posible dela

Eneko Alkorta,
Zangozako ikastolako irakaslea

kontua izan zela dio Eneko Alkortak. Irakaslea, Lehen Hezkuntzako koordinatzailea eta LHko 5. mailako tutorea da Alkorta, eta irakaskidetzaz bizirik irauteko aukera modura ikusi zutela azaldu du: “Gure ikastolara, Zangozako eta inguruko herrietako haurrak etortzen dira. Gainerako ikastetxeetatik bereizten gaituena euskara da, zalantzarik gabe. Baina, euskaraz gain, gainerakoetatik bereiziko gintuen beste zerbait behar genuen, eta horregatik egin genuen irakaskidetzaren aldeko apustua. Lan egiteko modu hori gertu dago geure identitate-tik, beti izan baitugu taldeak elkartzeko joera”. Zangozako ikastolan, betidanik izan dute taldeak nahasteko joera, Oriak azaldu duenez: “0-3 zikloa dugu, eta badira bi urteko haur batzuk, handiagoekin ere oso gustura egoten direnak. Moldatzen joaten gara. Taldeak nahasten eta haien arteko interakzioa bultzatzen saiatzen gara”.

Irakaskidetzak bereizgarri bat du Zangozan: ez dituzte maila bereko ikasleak elkartzen, ziklo berekoak baizik. Haur Hezkuntzan, elkarrekin daude 3, 4 eta 5 urteko ikasleak, eta Lehen Hezkuntzan, berriz, 1. eta 2. mailakoak eta 3. eta 4. mailakoak. Irakaskidetzarako aldaketa pixkanaka ari dira egiten, eta, datorren ikasturtean, LHko 5. eta 6. mailak elkartuko dituzte. Ondoren, DBHren txanda izango da, eta 2026-2027 ikasturterako irakaskidetzak ikastola osoan ezartzeko asmoa dute. Bide horretan, prestakuntzaren aldeko apustua egin dute hasieratik. Prestakuntza horren garrantzia azpimarratu nahi izan du Alkortak: “Prestakuntzak bultzada handia eman digu. Klaustro osoak jaso du, eta ikusi dugu askotariko esperientziak daudela eta aurrera egitea posible dela. Jendeak beldurrak eta kezak azaleratu ditu, eta zer indargune dituen ere ikusi du”.

Koordinazio lanaren garrantzia

“Irakaskidetzan, koordinazioaren gaia mahai gainean dago etengabe”, azpimarratu du



Ikasgelan bi irakasle izaten dira.

Oriak. “Irakasleok batera joan behar dugu denbora guztian. Lehen, lanak bakarrik egin zenitzakeen, baina orain ez. Lankideekin adostu behar da dena”, gaineratu du Alkortak.

Ikastola txikia da Zangozako. HHTik DBHra bitarteko ikasleak dituzte, 159 denera, eta 22 irakasle osatzen dute klaustroa. Klaustro egonkorra dute, eta ongi ezagutzen dute elkar. Horrek asko laguntzen duela diote, elkarren artean konfiantza handia dutelako. “Hilean behin edo bi hilean behin, behintzat, elkarriketa pertsonalak egiten saiatzen gara. Ez plangintzari buruz hitz egiteko soilik, baizik eta gure artean norberaren indarguneei, ahuleziei, gustuko dugunari eta gustuko ez dugunari buruz hitz egiteko. Lankidetzari garrantzi handia ematen diogu. Ikastolan dugun taldea oso indartsu dago une honetan, eta, horri eusteko, ezinbestekoa da elkar zaintzea”, adierazi du Oriak.

Irakasleak talde lanean aritzen dira, eta hori ikasleentzat ereduargarria dela nabarmendu nahi izan du Alkortak: “Talde lanean aritzen ikasi behar dutela eta gatazkak konpondu behar dituztela esaten diegu, eta, orain, gu gara horren guztiaren eredu”.

HHn eta LHn, gustura ari dira bikoteka lan egiten. Dena den, ikasgelan ez dira batera egoten denbora osoan, giza baliabideek markatzen baitituzte aukerak. Ratioak txikiak dira: LHko 1. eta 2. mailetan, 18 ikasle dira, eta 3. eta 4. mailetan, beste hainbeste; 5. eta 6. mailetan, berriz, 22 ikasle dira guztira. Ikasle kopuru txikiarekin aritzeak asko errazten du lana, eta, harremanei dagokienez ere, oso aberasgarria da ikasleentzat; baina badu alde txarrik ere. Hala dio Alkortak: “Nik zortzi ikasleko ikasgela dut 5. mailan. Alderdi sozialari erreparatzen badiogu, eta helburua haurren interakzioa izanik,

ez da batere onuragarria. Denbora guztian zortzi pertsonarekin soilik egoteak zailtasunak ere baditu. Rolak betikotu egiten dira, eta zaila izaten da ikasgelan sortzen den gizarte txiki horretan bakoitza bere roletik ateratzea. Adibide bat jartzearen, haserretzen den ikaslea urtero izango da haserretzen dena; etiketa hori izango du. Taldean ikasle gehiago daudenean, orde, rolak gehiago banatzen dira; ez daude hain markatuta”. Bestalde, talde txikiekin lan eginez gero, behaketarako denbora eta aukera gehiago dago, eta irakasleak gauza asko ikusteko aukera duela dio Alkortak: “Ikasgelan bi irakasle baldin badaude, garbi dago lau begik bik baino gehiago ikusten dutela. Eta aniztasunaren trataerari dagokionez, horrek asko laguntzen digu”.

“Ikasgelan bi irakasle daudenean eta rolak banatzen direnean, aldatu egiten da lan egiteko modua. Behatzaile moduan zauden denbora tarte horretan, gauza asko ikusteko gai zara, eta gauza asko ikas ditzakezu lankideengandik”, azpimarratu du Oriak. “Ebaluatzean ere, desberdina da irakasle bakoitzaren begirada, eta horrek ebaluazioa aberastu egiten du, dudarik gabe”, gaineratu du Alkortak.

Ebaluazioa, irakasle taldearen esku

Ebaluazioa bi irakasleren artean egiten dute orain. “Ikasgelan, bi mailatako ikasleak ditugu; garbi izan behar ditugu ebaluazio irizpideak, eta ongi mailakatu behar dira. Orain, adibidez, 3. mailan dagoen ikasle bat 4. mailako helburuetara bideratzeko aukera dugu, eta ikasgelako jarduna ikasleen gaitasunen arabera egokitzea aztertzen ari gara”, aipatu du Alkortak.

Ebaluazioa bi irakasleren artean egiten dute; baina, ondoren, irakasle taldearekin kontrastatzen dutela azaldu du Oriak: “Ebaluazioa lankidearekin batera egiten dugu, alde batetik, eta, bestetik, ikasgelan ordu gehien pasatzen ditugun irakasleak elkartzen gara, eta lau, bost edo sei begirada izaten ditugu ebaluazioa egiteko”.

“Lehen, nork bere ebaluazioa egiten zuen; baina, orain, ebaluazio hori indartu egiten da, eta, ikasgela barnean erreferentzia diren bi irakasle direnez, gurasoei iristen zaien mezuak indar handiagoa du. LHko irakasle taldeak uste duena helarazten diegu familiei, ez irakasle batek edo bik uste dutena soilik, eta taldearen ikuspegia izateak indarra ematen dio esaten ari gare-nari”, adierazi du Alkortak.



Ikasgelan bi irakasle daudenean eta rolak banatzen direnean, aldatu egiten da lan egiteko modua

Nagore Oria, Zangozako ikastolako irakaslea

Pozik emaitzekin

“Oraindik ez dugu laginik akademikoki hobekuntzarik egin dugun ala ez esateko. Hori denborak esango digu, baina sententzioak oso onak dira. Ikasleak talde txikietan egoten ziren, eta, orain, jende gehiagorekin egoteak arnasa eman die”, esan du Alkortak. Familiak ere pozik daude egindako aldaketarekin.

Aurrera begira, hainbat erronkari heldu beharko diete: despopulatzearen gaia mahai gainean dute Zangozan, arazoa larria baita. 2023an, 17 haur jaio ziren herrian, eta, orain arteko joerari eutsiz gero, horien herenak hartuko du ikastolarako bidea. Taldeak gero eta txikiagoak izateko aukera zabalik dute, beraz, eta unean uneko egokitzapenak egiten jarraitu beharko dute; baina pozik daude orain arte egindako lana ematen ari den emaitzekin.



Lehen, norberak bere ebaluazioa egiten zuen; baina, orain, ebaluazio hori indartu egiten da, eta, ikasgela barnean erreferentzia diren bi irakasle direnez, gurasoei iristen zaien mezuak indar handiagoa du

Eneko Alkorta, Zangozako ikastolako irakaslea



Bi irakasle ikasgelan ikasleei azalpenak ematen.

Eskolan lotura afektiboak eraikitzen

Ekarpena

Irakaslea funtsezko erreferentzia da haurren garapen kognitiboan, sozialean eta emozionalean, eta irakasleen eta ikasleen arteko harremanak berebiziko garrantzia du haurren garapenean. Hortaz, garrantzitsua da irakasleek ikasleekin lotura afektiboak eraikitzea eta ikasgelan seguru senti daitezen lortzea.



Estibaliz Ramos

Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea)



Lorea Azpiazu

Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Gizakiok lehenbiziko lotura emozionalak hurrekiko inplikaziorik handiena eta jarraituena duten pertsonekin ezartzen ditugu (normalean, pertsona horiek zaintzaileak izaten dira). Halaber, haurrak euren garapen testuinguruak dibertsifikatzen joaten diren heinean, testuinguru horietan sortzen diren pertsonen arteko harremanak esanguratsuak izaten dira, garapen afektiboari dagokionez. Aipatutako testuinguru horien artean, jakina, eskola dago. Hurrek ordu kopuru handia igarotzen dute eskolan, eta, gainera, gero eta goizago hasten dira.

Sarri eredu produktibista eta akademiko hutsera mugatu den arren, eskola ikasleek bizitzarako gaitasunak ikas ditzaten funtsezko ingurune gisa identifikatu izan da hainbat ikerketatan; izan ere, alderdi sozio-emozionala eta jokabideak eraikitzeke ongi hornitutako sozializazio testuingurua da. Aldi berean, berriki, haurren garapen sozio-afektiboa hezkuntza sistemaren xedeen artean jaso da, Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan. Horrenbestez, badirudi zentzuzkoa dela ondorioztatzea irakasleen rolak berebiziko eragina izango duela ikasleen garapen sozialean eta garapen

pertsonalean.

Irakaslearen rola ikasleen garapen sozio-emozionalean

Ikerlan ugaritan, ikertzaileak bat datoz honetan: zaintzaile helduek hurrei ematen dieten sostengua eta lotura emozionala ezinbestekoak dira haurren garapen osasuntsua lortzeko. Esparru horretan, irakaslea funtsezko erreferentzia gisa hartu izan da haurren garapen kognitiborako, sozialerako eta emozionalerako.

Egun adituen artean eztabaidak jarraitzen duen arren, oraino ez dago argi irakasleek atxikimendu erreferentzien hierarkian rol jakin bat betetzen duten ala ez. Aitzitik, ukaezina da irakasleek haurren garapen sozio-afektiboan duten eragina. Alderdi horietan oinarrituta, argi esan daiteke ikasleen eta irakaslearen arteko harremanak atxikimendu osagaiak dituela. Haurrak irakaslearengana jotzen du sostengu bila; atxikimendu horrek portaera soziala sustatzen du, eta emozioen erregulazio prozesuak gidatzen ditu. Izan ere, irakasleak, askotan, oinarri seguru moduan jokatzen du, eta haurrak

harengana joaten dira une estresagarrietan kontsolamendu bila. Orobat, irakaslea sostengu iturri gisa aritu daiteke, ikasleek mundu sozialean araka dezaten eta elkarri eragin diezaioten. Hau da, irakasleen eta ikasleen arteko harremana oso garrantzitsua da, haurrengan eragina izateko. Hortaz, harreman hori garapenaren alderdi gisa hartu behar da, ezinbestean.

Irakasleek ez dute zertan atxikimendu erreferentziaren papera euren gain hartu, baina, haurrak gelan onartuak eta seguru sentitzea nahi badugu, konfiantza senti dezaten saiatu behar dute irakasleek, eta haien segurtasun emozionala indartzen lagundu. Horri dagokionez, segurtasun emozionala sustatzen duen eredu positibo bilakatu daiteke irakasleak hurrekin sortzen duen elkarreragin mota. Halaber, irakaslearekiko loturaren kalitateak eragina izango du haurren enpatian, garapen sozialean, ikasgelan duten jokabidean eta baita haien gaitasun kognitiboetan ere.

Ikasleen eta irakasleen arteko elkarreragina, atxikimendu moten arabera

Gaitasun emozionalak haurtzaroan ikasten dira, familia eta eskola testuinguruetan. Eskolan, irakasleak erreferentzia moduan jokatzen du, eta haren jokaera funtsezkoa izaten da haurren garapen egokirako. Hori dela eta, beharrezkoa da irakasleen eta ikasleen arteko harremanak sakon aztertzea.

Irakaslearen eta haurren artean ezartzen diren elkarreragin prozesuak bi noranzkokoak dira, eta bataren eta bestearen ezaugarriek elkarri eragiten diote. Loturaren kalitatea, nolabait, irakaslearen ezaugarrien mende egongo da: esate baterako, haren historia pertsonalaren, pertzepzioen edo ikaslearekiko dituen espektatiben mende. Era berean, haurrak erreferentziazko pertsonarekin duen atxikimendu motaren arabera, ikasgelan irakaslearekin zein parekoekin erlazionatzeko duen modua era batekoa edo bestekoa izango da.

Euren erreferentziazko pertsonarekiko atxikimendu segurua finkatu duten haurrek irakasleekin modu seguruagoan erlazionatzeko joera izango dute. Orobat, elkarreragin positiboagoak ezarriko dituzte euren ikaskideekin, ikasgelako integrazio maila altuagoa izango da, eta egokitze akademiko eta sozial hobea erakutsiko dute. Horrek erraztu egingo du ikasleek irakasleak enpatikoagotzat zein trebeagotzat hartzeko joera izatea.



Euren erreferentziazko pertsonarekiko atxikimendu segurua duten haurrek irakasleekin modu seguruagoan erlazionatzeko joera izango dute

Segurtasun faltan zein konfiantza faltan oinarritutako atxikimendu ereduak garatu direnean, irakasleak, bere interakzio positiboaren bidez, harreman eredu alternatiboa sortu dezake. Halakoetan, irakaslearekin ezartzen den harreman positibo hori sendotzen bada, babes faktore bikoitz bihurtu daiteke, eta babes edo prebentzio harreman bilakatu. Horrek, alde batetik, atxikimendu ez-seguruen ondorio negatiboak konpentsa daitezke lagundu dezake, eta, bestetik, atxikimendu ez-segurua duten ikasleak irakaslearekin duten elkarreragin egokiaz balia daitezke eskolako doitze soziala zein doitze akademikoa hobetzeko. Gainera, irakasleen zeregina bereziki esanguratsua da tratatu txar, abandonu edo arduragabekeria kasuetan.

Nola sustatu ikasleen segurtasun emozionala ikasgelan

Orokorrean, Haur Hezkuntzako irakasleek beste ezeri baino denbora gehiago eta ahalegin handiagoa eskaintzen diote ikasleekin kalitate oneko harremanak ezartzeari. Aitzitik, gainerrako hezkuntza etapetan, irakasleek ardura

handiagoa jartzen dute ezagutza akademikoak eskaintzean. Lehenengo irakasleekin ezartzen den interakzioaren kalitateak eragina izango du hurrengo ikasturteetako irakasleekiko harremanetan. Elkarrekintzaren kalitate horren garrantzian oinarrituta, Roman eta Morgado (2022) egileek proposatzen dute lehen urteetatik aurrera ere adin txikikoekin harreman positiboak sustatzeko ahalegina egiten jarraitzea. Horretarako, eskolan haurren segurtasun emozionala sustatzen lagundu dezaketen hainbat jarraibide iradokitzen dituzte:

- Irakasleek kontzientzia hartu behar dute euren jardunaren garrantziaz. Irakasleak harremanetarako eredu direla jakitea eta interakzio positiboan onurak ezagutzea dakar horrek.

- Irakasleen berezko ezaugarriek ikasleekin ezartzen duten harremanean duten eragina dela eta, gomendagarria da norberaren espektatibei buruz eta ikasleekiko elkarrekintza estiloei buruz gogoeta egitea. Halaber, ezinbestekoa da irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobetzeko ahalegin esanguratsua egitea, zaurgarritasun egoeran edo arriskuan dauden umeeekin batik bat. Interakzio positibo horiek onura handia ekarriko diete arrisku emozional, sozial edo akademikoren bat duten ikasleei.

- Irakasleek harremanen batuketaren emaitza gisa ulertu behar dute ikasleen jokabidea. Eta jokabide hori hezkuntzako profesionalek ikasleen beharrezanekiko duten sentikortasunari esker hobetu daiteke.

- Irakasleak, ikasleekin ezarritako interakzioak harreman eredu positibo bihurtu daitezten, alderdi hauek hartu behar ditu kontuan: sentikortasuna, eskuragarritasuna eta koherentzia. Irakasleak entzuten badaki eta hurbilerraza, motibatzailea eta ulerkorra bada, hobera egingo du harreman horren kalitateak. Eta berdin elkarreragin positibo ugari eta indibidualizatuak sustatzen dituen heinean ere.

- Irakasleek ikasleari bere buruaren irudi positiboa eraikitzen lagundu diezaioke, laguntza emanaz, kasu bakoitzari egokituak lortzen espektatibak sortuz eta onartua senti dadin saiatuz.

- Irakasleek haurren integrazioa sustatu behar dute parekoen taldean, besteenganako konfiantza indartuz; atxikimendu ez-segurua duten haurren kasuan bereziki.

- Eskolan hasteak egoera zaurgarria ekar diezaioke haurrari,



Irakasleek ikasleekin ezarritako interakzioak harreman eredu positibo bihurtu daitezten, alderdi hauek hartu behar ditu: sentikortasuna, eskuragarritasuna eta koherentzia

EAEko Hezkuntza Legea

Biharamunerako koordenatuak

EAEko Hezkuntza Lege berriak agertoki berri batean jarri ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeak, irakasleak, hezitzaileak, langileak, ikasleak, familiak, hezkuntza eragileak eta, oro har, jendarte osoa.

hik hasiren Hezkuntza Proposamenaren talaiatik begiratu diogu abagune berriari. Legeak zabalduetako aukerak, sortutako zalantzak eta aurrera begira garatu beharreko ildoak aletzen dira liburuxka honetan, betiere denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema xede.



Monografiko berria



ordura arteko atxikimendu erreferentziatik bereizteak larritasuna sortu diezaiokeelako. Hortaz, ikasle bakoitzaren egokitzapen erritmoa errespetatu behar da, bereziki Haur Hezkuntzan eta etapa batetik besterako trantsizioetan.

- Oso gomendagarria da ikastetxeak irakasleen eta ikasleen arteko harremanaren kalitatea hobetzen laguntzea, kideen artean giro positiboa eta goxoa sustatuz.

- Ratio baxuak izateak hurbilagoko harremanak errazten ditu. Irakasleek zenbat eta ikasle gutxiagori arreta eskaini behar izan, orduan eta denbora gehiago eskaini ahal izango diote ikasle bakoitzari, eta elkarreraginen inplikazioa eta maiztasuna areagotuko dira horrela.

- Komenigarria da familiekin harreman egokiak eta konfiantza giroa sustatzea eta ikastetxea ezagutu dezaten bultzatzea.

Ondorioak

Eskolan haurtzaroko garapen sozio-emozionalari egiten zaion ekarpena jasotzen da indarrean dagoen araudian eta hori bultzatzea irakasleen funtzioetako bat dela zehazten da. LOMLOE legean, zehazki, hezkuntza emozionala hezkuntzako curriculumaren oinarri pedagogiko gisa eta funtsezko gaitasun gisa hartzen da. Gainera, hainbat ikerketak berretsi dute irakasleek oinarri seguru gisa eta babesleku seguru gisa betetzen duten funtzioak ikasleen segurtasun emozionala sustatzen duela. Hori dela eta, irakasleen kolektiboak duen erantzukizuna onartu behar da. Haurrentzat, harreman eredu bihurtzen da irakasleekiko elkarrekintza, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bereziki.

Hezkuntza testuinguruan ezartzen diren elkarreragin motak modu esanguratsuan eragingo du ikasleen hainbat alderditan: jarreretan,



Hainbat ikerketek berretsi dute irakasleek oinarri seguru gisa eta babesleku seguru gisa betetzen duten funtzioak ikasleen segurtasun emozionala sustatzen duela. Hori dela eta, irakasleen kolektiboak duen erantzukizuna onartu behar du

alderdi emozionalean, alderdi kognitiboan eta jokabideetan.

Erreferentzia bibliografikoak

- BERGIN, Christi; BERGIN, David (2009). "Attachment in the Classroom", in *Educational Psychology Review* 21: 141–170. <https://doi.org/10.1007/s10648-009-9104-0>.
- GARCÍA-RODRÍGUEZ, Laura; IRIARTE, Concha; REPARAZ, Charo (2023). "Teacher-student attachment relationship, variables associated, and measurement: A systematic review" in *Educational Research Review* 38, 100488. <https://doi.org/10.1016/j.edurev.2022.100488>.
- GIMBERT, Belinda; MILLER, Dustin; HERMAN, Emily; BREEDLOVE, Meghan; MOLINA, Citlati Estela (2023). "Social emotional learning in schools: The importance of educator com-



petence" in *Journal of Research on Leadership Education* 18 (1): 3-39. <https://doi.org/10.1016/j.edurev.2022.100488>.

· HOWE, David; BETTS, Lucy (2023). *Attachment across the lifecourse: A brief introduction*. Londres: Bloomsbury Publishing.

· ROMAN, Maite; MORGADO, Beatriz (2022). "Construyendo vínculos afectivos" in *Manual de psicología del desarrollo aplicada a la educación*: 61-75. Madrid: Ediciones Pirámide.

· SABOL, Terri; PIANTA, Robert (2012). "Recent trends in research on teacher-child relationships" in *Attachment & Human Development* 14 (3): 213–231. <https://doi.org/10.1080/14616734.2012.672262>.

Ahalduntze eskola

Subjektu politikoak eraikiz

Umeak politikan parte hartzeko eta erabaki politikoak hartzeko gai dira txiki-txikitatik, baina normalean ez diegu eskubide hori aitortzen eta hezkuntza sistemak ikasleak erdigunean daudela dioen arren, subjektu gisa baino, objektu gisa hartzen ditu maiz. Umeak subjektu politiko direla aldarrikatzen du Oinharrik.



Gorka Zozaia Garcia
Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta
Oinharri eskolako pedagogia lantaldeko kidea



Oinharri eskolako pedagogia lan taldeak erantzun ditu **Hik Hasik** egin-dako galderak. Brasilgo Escola Nacional Florestan Fernandes (ENFF) eskolaren metodo politiko-pedagogikoa Euskal Herrira ekarri nahi duen formakuntza politikorako eskola da Oinharri. Elkarbizitzan oinarritzen da haien metodoa eta formazio

politikoa ikuspuntu holistikotik ulertzen dute.

Formazio politikoa eta kontzientzia sortzea dira Oinharriren bi zutabe nagusiak, betiere pertsona askeak sortzeko helburuz.

Bai, hausnarketa kolektiborako espazio bat eskaini nahi diegu herri mugimenduetan aritzen direnei esperientzia formatiboak, ezagutza eta praktika politikoak komunean jartzeko eta denon artean ikasteko espazio bat sortzeko.

Garrantzitsua da formazio politiko hori txikitatik hasia. Oinharri Txiki eskola ere baduzue, umeentzako formaziorako espazioa. Zer jasotzen dute umeek bertan?

Haurrak Oinharri Txiki eskolan elkartzen direnean, talde bateko kide direla sentitzeko eta esperimintatzeko aukera izaten dute; emozioak eta ideiak partekatze espazio seguru bat elkarrekin eraikitze aukera. Ideiak eta erabakiak haien artean adosteko eta ondoren horiek aurkezteko aukera izaten dute, antolakuntza lanaren balioa barneratuz. Komunitate lanetan parte hartzen dute eta teoria eta praktika politikoaren alorrean, kontzeptu berriak ezagutzea eta horien gainean hausnartzea lortzen dugu, baita musika eta plastikaren bidez kultur adierazpidea lantzea ere.

Umeentzako formazio politikoa. Ez gaude horretara ohituta eta hezkuntza arautuan ere ez du lekurik izaten. Zergatik ez ditugu umeak subjektu politiko gisa hartzen?

Hezkuntza arautuak ez ditu haurrak subjektu politiko gisa hartzen, heldu direnean subjektu politikoak izaterik ez duelako nahi. Egungo sistema politikoek, ez dute eskatzen herritarrek subjektu politiko izaterik, baizik eta lau urtean behin alderdi politiko batengan erantzukizun politikoak delegatzea. Bestalde, sistema ekonomiko-sozial ankerra iraunarazteko ezinbesteko baldintza da herritarrek horri aurre egiteko gai ez izatea. Mendebaldeko sistema

kapitalista, patriarkal eta kolonialistak prestakuntzarik ez duten eta ingurua eraldatzeko gaitasunik ez duten herritarrak nahi ditu. Ahaztu egiten dugu, gainera, hezkuntza arautuaren atzean dagoen erabaki politikoen multzoa; sistema curriculumaren bidez iraunarazten da. Baina, funtsean, eskoletan, umeak eta gazteak ez ditugu subjektu politiko gisa hartzen haien bizitzarekin loturiko aferen gainean deus erabakitzeko aukerarik ez duten momentutik. Hezkuntza sistemak erdigunean daudela aldarrikatzen duen arren, ikasleak objektuak dira, ez subjektuak.

Ikastetxeetan lekua izan beharko al luke formazio politikoak?

Jakina! Egungo eskolaren funtzionamenduak eta antolaketak, politika modu zehatz batean ulertzeko prestatzen ditu pertsonak. Bigarren Hezkuntzaren amaiera arte ikasleek ez dute euren bizitza baldintzatzen duten erabaki esanguratsuetan parte hartzerik izaten eta unea heltzen denean, ez dira horretarako prest egoten. Nola jakingo dute erabakiak hartzen, aurrez inoiz egin ez badute? Nola jakin zer nahi duten, inoiz galdegin ez badiegu? Hezkuntza arautuan formazio politikoak abiapuntu hauxe izan beharko luke: ikasleek norbanako gisa, baina batez ere talde gisa, euren interesak identifikatzeko eta erabaki esanguratsuak hartzeko aukera izatea.

Gaur egungo hezkuntza sistemak pertsona ez-osatuak, kutsatuak eta apurtuak eraikitzen dituela diozue. Kritika gogorra egiten duzue. Bai, oso kritikoak gara. Are gehiago azken urteetan bizitzen ari garen segregazio prozesuak ikusirik; gehiengoarentzat hezkuntza eskaintza gero eta pobreagoa da eta badirudi kalitatezko hezkuntza ordain dezaketenean soilik jaso dezaketela. Oinharri eskolan logika hori apurtzeko apustua egin genuen hasieratik, ikastaroak doan eskainiz, haurren zaintza heziketa prozesu bihurtuz eta hori kolektibizatzeo aukera eskainiz.



Erabaki politikoak hartzeko gai


Politika umeen gauza ere bada. Helduon kontua dela pentsatzen dugu maiz, baina Oinharri eskolak, eta zehazki Oinharri Txikin izandako esperientziak, garbi uzten dute parte hartzeko eta erabaki politikoak hartzeko gai direla eta eskubide hori aitortzea benetan garrantzitsua dela. Oinharriren esperientziak argi utzi du hori guztia Gorka Zozia kidearen hitzetan: "Gure esperientzia txikia kontuan izanik (gehienetan bost urte inguruko haurrekin egin dugu lan), haurrek afera politikoak ongi hautematen dituztela esan dezakegu: Oinharri Txikin zer jardura egingo ditugun erabakitzen dute, haien arteko haserrealdiak nola kudeatu behar diren ikasten dute, egindakoaren gaineko balorazioa egiten dute eta aurrerantzean nola hobetu daitekeen proposatzen dute. Era berean, erabakiak hartzeko ahalmena duen batzorde politiko-pedagogikoaren figura ezagutzen dute eta horren boterea kritikatzeko aukera izaten dute".

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

**Izan zaitez
HikHasitarra!**

www.hikhasi.eus



Lotsatzeko jarrierarik ez

50

Proposamena

Egutegiak hainbat egun ekartzen dizkigu LGTBIQ+ mugimenduaren eskubideak eta aldarrikapenak aitortzeko eta genero eta sexu aniztasuna lantzeko. Ekainaren 28a LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dugu, baina familien nazioarteko eguna ere (maiatzaren 15a) balia dezakegu, adibidez, familien aniztasuna lantzeko, eta zer esanik ez, maiatzaren 17a, LGTBIQ+ Fobiaren Aurkako Eguna.



Ekainaren 28a

LGBTIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna, Gayen Harrotasunaren Eguna ere deitua, 1970eko ekainaren 28tik ospatzen da mundu mailan. Homosexualitatea legez gaitzetsita zegoen garai hartan AEBn (Frantziako Estatuan, 1985etik aurrera debekatu ziren sexu orientazioaren arabeko diskriminazioak, eta Espainiako Estatuan, 1978 arte homosexualak "errehabilitazio soziala" behar zutela zioen legeak). 1969ko ekainaren 28an, New Yorkeko Stonewall auzoan gertatu ziren istilu larriak gogoratzen ditu Harrotasunaren Egunak. Stonewall auzoko Inn Pub taberna herriko homosexualen eta transexualen bilgune garrantzitsua zen, eta poliziak sarekada bat egin zuen taberna horretan gau hartan: sexu ikuskatzeak egin zituen, eta nortasun agiriarekin bat ez zetozen pertsonak atxilotu zituen. Atxiloketa haiek protesta ugari eragin zituzten eta, horren ondorioz, homosexualen eta transexualen komunitateak batu egin ziren.

Homosexualitateak, lesbianismoak, bisexualitateak, transexualitateak, ez-bitartasunak, *queer* mugimenduak, gorputz ez-normatiboek... horiek guztiek gero eta ikusgarritasun handiagoa dute gure gizartean, eta hainbat alorretan aurrerapauso handiak egin badira ere, urrun gaude oraindik aniztasun sexu afektiboa onartzetik eta lasai bizitzetik. Gure ikastetxeetako korridoreetan entzuten diren *marikoi*, *marimutil* eta antzekoek erakusten digute egiteko asko dagoela oraindik

ere. Hezkuntzan aldaketak egiteko premia erakusten dute datuek: LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen % 60k erasoren bat jasan du bere ikasle bizitzan.

Sexu eta genero aniztasuna lantzeak berebiziko garrantzia dauka: hasteko, haur edo nerabe bakoitzari bere izatea askatasunez eraikitzeak aukera emateko; horrez gain, komunitate moduan aniztasuna balioan jartzeko, jazarpenei aurrea hartzeko eta, bereziki, bullying homofobikoa saihesteko; familia

aniztasuna ikusarazteko; eta irakasleen eta eskolako langileen aniztasuna errespetatzeko, oraindik ere hezitzaile asko ez baitira gai eskola bizitzan euren orientazio sexualaz aske hitz egiteko.

Etapaz guztietan landu behar da gaia.

Sexologoak DBHn eta Batxilergoan etortzen dira ikastetxera sexu heziketaz hitz egitera, baina "benetako sexu heziketa txikitatiki egin behar da, askatasunean eta errespetuan oinarritutako bada", Gehitu elkartearen arabera. Bat datoz horrekin gaiaz Euskal Herrian egin diren material pedagogikoak: etapa guztietan landu behar da orientazio eta sexu aniztasuna. Gehitukoek dioten moduan, lehen diskriminazioa Haur Hezkuntzan hasten da, iruditeriaren murrizketarekin. Hortaz, hausnarketarako galdera hau proposatzen digute: HHko ikus-entzunezko materialetan, jardueretan eta planifikazioan, zaintzen al dugu aniztasun sexu-afektiboa eta familien aniztasuna? Sistema bitarretik eta heteroarrautik harago, zer eskaintzen diegu umeei? Izan ere, "haur batek ikusten duenean eskaintzen zaion iruditerian ez duela lekuri, bera izango da bere burua epaituko duen lehendabizikoa". Iruditeria zabaltzeak eta erreferentziak eskaintzeak "hau existitzen da" esaten die umeei, eta "ni ondo nago, ez daukat konpontzeko ezer". Itxaso Torregrosa sexologoak bat egiten du Gehitukoek ikuspegiarekin LABentzat ondu duen gidan: "Sexu heziketaren helburu nagusia umeei eta gazteek beren buruak ezagutzea, onartzea (baita besteak onartzea ere) eta modu askean bizi eta adierazi ahal izatea da".

Zehar-lerro izan daiteke gai guztietan. HHn eta LHN norberaren burua ezagutzen eta ingurune hurbila lantzen hasten garenetik, oso presente izan behar dugu aniztasun sexuala. Ondoren, curriculumak aukera ugari ematen dizkigu, ikasgai guztietan aniztasuna ikusgarri egiteko. Honako

proposamen hauek egiten ditu, besteak beste, Steilasek gidak: Artearen historian, arte homoerotikoaren errepresentazioak lantzea; Natura Zientzietan, animalien hermafroditismoa, transexualitatea eta intersexualitatea lantzea; Euskara, Gaztelania edo Frantseseko eskoletan, hizkuntza ez-baztertzailerak lantzea; Historian, LGTBQ+ mugimenduaren ikuspegi historikoa jorratzea; Gorputz Hezkuntzan, generoaren araberrako diskriminazioa saihestea, eta abar.

Giroa zaindu. Ikastetxeko giroa zaintzea ezinbestekotzat jotzen dute Steilasek eta LABen gidek, haurren eta bereziki nerabeen arteko irainak, trufak, txantxak eta jazarpenera saihestuz. Baina giroa zaintzea ikasleen eta irakasleen arteko konfiantza giroa sortzea ere bada; izan ere, Gehitukoek inkesten arabera, ikasle askok ez lioke inori esango transa, gaya edo lesbiana denik, beldurragatik. Irainak eta trufak saihesteko, garrantzitsua da eskolako irakasleek ez ezik jangela orduko hezitzaileek ere prestakuntza izatea, bai eta atariko orduak zaintzen dituztenek ere, eta guztiak sentsibilizaturik egotea.



Gida eta unitate pedagogikoak:

Steilasek, LABek, Gehituko eta Naizek, besteak beste, sexu eta genero aniztasuna lantzeko gidak eta materialak dituzte, doan eta libre, euren webguneetan.

Berriki, Hiruki Larroxak *Armairutik plaza!* izeneko unitate didaktikoak sortu ditu Hernaniko Udalaren laguntzaz. *Hernani.eus* webgunean lortu daiteke.

Jakin-mina zorroztu

*hik hasi*ren produktu berriak webguneko dendan daude eskuragarri. Poltsa, estutxe eta koaderno hauekin urtea ezinhobe hasiko duzue!





Beatriz Barriola Ayerdi

Abadiño BHiko Berrikuntza Arduraduna

Atzeko atetik

Maya eta BeA

54

Bea eta BeA, Abadiño BHiko Berrikuntza Arduraduna naiz. Ikastetxe publikoen lidergo pedagogikoa eramatea dagokigu, apustu benetan anbiziotsua, errealtate ez balitz, kanpainako promesa zirudikeena.

Ikastetxeen lidergo pedagogikoa estrategikoa da gure eskola hobetu nahi badugu. Curriculum berriak eragindako lurrikara sumatu dugu erlauntzean, eta metodologia aktiboen zein ebaluazio formatiboaren erreplikak denbora batez iraungo dute. Hezkuntza Saila eraldaketa honen konplexutasunaren jakitun da, Maya Erlea bera banintz bezala irten bainintzen BeA figuren trebatze astetik, ahaldunduta: mila loreko aukera zelaia nuen parez pare, guztia zen abentura, guztia asmo ona. Burrumba alaiean itzuli nintzen nire erlauntz partikularrera. Gure erle abenturazalea! Baina norbere errealtatean murgiltzean, nire lore bakartiaren babesean Willi izatera pasa naiz: mesfidatia eta beldurtia. Liztorrak ikusten ditut nonahi, nire

zilegitasuna kolokan sentiarazten didaten indar erresistenteak.

Barruko Mayak diosta badirela bi gai lehentasunez tratatu beharrekoak sistema mailan. Batetik, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, erlauntzaren eta ekosistemaren biziraupena bermatzeko ezinbestekoa dena. Bestetik, aniztasunaren trataeraren auzian aldamiagea eta desaldamiagea, ikasleari autonomia progresiboz jardutea baimenduko dion laguntzaren diseinua. Bi kontu horiek jakintzagai guztietatik lanketa komun progresibo eta koordinatu bat diseinatzea eta pilotatzea eskatzen dute, izan ere, ikastetxe guztiok sistemaren parte bagara eta sistema bada irauli nahi duguna, bide-orri partekatua behar genuke izan.

Abadiño BHiko erlauntzeko BeA erleok estruktura motoreen ahalduntzerako eta burrunba kolektiborako deia luzatzen dugu, lankidetzarakoa. Erle langileok, elkartu gaitezen!

Hezkuntzaren bidez egiten du norbanakoak aurrera, eta hezkuntzak laguntzen du gizartea aldatzen.

Angela Davis



ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

- ▶ 10 urteko esperientzia ikuspegi konpetentzialean
- ▶ Euskara eta euskal kulturaren transmisioa
- ▶ Doako aholkularitza pertsonalizatua

Maitasun handiz, **arreta** guztiarekin, eta **doan**

LEHEN URRATSA



Haurreskolak

IZEN EMATEA

APIRILAREN 22tik MAIATZAREN 10era

www.haurreskolak.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN